

Zelai, harriarekin maiteminduta

Beharbada gutariko gehienontzat ezezaguna den langintza baten berri jaso dugu egunotan. Granitoa lantzeak berarekin dakartzan zailtasunak halako xarma eransten dio lanari eta interesgarri bihurtzen du oso Zelaik eta Inaxiok, bakoitzak bere lantegian, harri landugabea hain dirdiratsu bihurtzeak darman prozesua. Gorabehera hauek zertxobait ezagutu asmoz Zelaiengana jo dugu, alegia, bere baserrian duen lantegira.

DROGETENITURRI: Zelai azaldu eiguk pixka bat zertan datzan zuen lana.


ZELAI: Bai, beno, granitoa deritzon harri mota hau Hegoafrikatik, Sobiet Batasunetik, Argentinatik eta, ekartzen diagu, eta baita granito nazionala delakoa ere Galizia, Extremadura eta Avilan dagoena. Bloke handietan ekartzen dizkiatek 'Ingemar-ek' Usulbilen duen harrobira eta gero guk han eskatzen diagu behar dugun neurrikoa.

D: Nori zuzendua da zuen lana?

Z: Beno, guk gurutzeak eta lorontziak egiten dizkiagu eta horiek gehien bat kanposatueta jartzeko izaten dituk, baina ez gure lana bereziki horra zuzendua delako. Etxeetako atariak apaintzeko pitxer edo jarroiak ere eskatzen zizkigutek. Esan nahi dudana zera duk, alegia, gu geure lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen gaituk, gero zer erabilera eman bakoitzak erabakitzen dik.

D: Zuek granitoa lantzen duzue. Granito edo marmola lantzea ezberdin izango da, noski.

Z: Bai horixe. Marmolak esaterako bigunagoa izanik askoz lan gutxiago zeukak; bestalde, materialea bera ere merkeago duk eta ez duk granitoa bezain garesti ateratzen. Marmolak, oster, badik eragozpenik ere, alegia, etxe barruan gordez gero dirdira luzaroago mantentzen dik, baina kanpoan ajatu egiten duk eta noizean behin 'acido salico' eta argizariarekin garbitu behar izaten duk berriro dirdira hartu dezan. Granituari ez zaiok horrelakorik gertatzen. Sekula ez dik dirdirarik galtzen.



D: Granitoa ei da munduan zabalduen dagoen mineral mota. Hemengo harrobiak oparoak al dira?

Z: Diotenez Euskal Herrian ez zegok granitorik, marmola bai. Agi danez, Zumarragan bazegok zenbait granito baino harri mota gogorrago bat, baina ez omen duk granitoa. Jaso-harriak egiteko eta, erabili izan duk harri hori, Zumarragako erreka deitzen ziotek.

Orduan, granitorik gehiena kanpotik etortzen duk. Estatu barruan, Galizia, Extremadura eta Avilatik; gainerakoa, Hegoafrika eta Hegoamerikatik. Guk erabiltzen duguna, gehiena, 'negro intenso' deritzaiona duk, Hegoafrikakoa.

D: Oso oker ez banago kanpoko eskaria gehiago duk bertokoa baino.

Z: Bai, hori horrela duk. Guk saltzailen bidez banatzen diagu eta gehienoa Zaragoza, Castellón eta Santander aldera joaten duk. Nik uste diat horrek baduela arrazoi bat, alegia, hemengo jenteak urteroko bisitaldia egiten dik kanposatura eta hurrengo urtera arte. Nik uste diat kanpotarrak ardura handiagoa izaten dutela arlo horretan, edota gutxienez hila biak dotore zaintzen gehiago ahalegintzen dituk eta ez zaiok inporta diru gehixeago gastatzea.


Gure lanaren alderik oipagarriena zera duk, alegia, ez zegok inor inguru hauetan lan hau egiten duenik. Avilan bazegok antzeko lantegi bat, baina esate baterako, guk egiten dugun gurutze mota es dik inor egiten.


D: Ez European eta ez beste inon esan nahi duk?

Z: Bai hori duk. Hala ere, esan beharrean niagok hau ez dela guk asmatua. Bi gizon izan zituan, Zabaleta eta Matxain hernaniarrak, sistema hau asmatu zutenak. Bestalde, inork egiten ez duen zerbait geuk egiteak ez dik esan nahi inor baino hobeak garenik, gizon horiek ezagutzeko sortea izan genuela baino. Mundu guztian zehar ibilitako gizonak dituk eta harriak dituen sekretuak ongi baino hobeto ezagutzen diskitek. Guk dakiguna haiei ikasia duk. Lehen esan dudana bezala guk izan dugun sortea haiek ezagutzea izan duk.

D: Harrijasotzen, harria lantzen zer duk harria hiretzat?

Z: Ba, beno, beste askok bere alorrean





esan izan duen legez harria dena duk niretzat. Harrijasotzen mutikotatik hasi ninduan eta gero gainera beti liluratu izan naute harrizko monumentuek.

Bestalde, zaletasun hori dela bide harrijasotzea, alegia, marmolari bat ezagutu nian, nire entrenatzaile lanetan aritzen dena, eta haren bitartez ezagutu nian oraingo lan hau. Orain arte baserriko lanetan ihardun izan banauk ere, as-

koz ere gogokoago diat beste hau. Harri trakets batetik zer gauza politak atera daitezkeen ikusteak, buruhauste guztiak ahaztu eragiten dizkik. Harria lantzeak eta harriaren mundu honek, nolabait ere, naturarekiko lotura bat suposatzen direla esango niakek.

D: Bukatzeko, Zelai, zuen lana ezagutu nahi duenak edo zerbait nahi duenak

nora zuzendu behar da.

Z: Beno, ba helbidea Zelai baserria Mallabian. Telefonoak hauexek: 131222 eta 173141.

D: Agur eta sorte on.

HERRERO Txarkuteria

Erdiko Kale 7

